

PATXI ALTUNA ETA PATXI GOENAGARI AZPEITIKO UDALAK OMENALDIA

Azpeitia, 2001-XII-02

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jose Mari Bastida, Azpeitiko alkate jauna.
Miren Azkarate Kultura sailburu anderea eta euskaltzaina.
Euskaltzainkideak.
Jaun-Andereak, eguerdi on!

Zuri mintzo natzaizu, alkate jauna, eskerren bihurtzeko Udalak apailatu duela lehenik Euskararen Nazioarteko eguna; bigarrenik baliatzen duela egun hau bi azpeitiar euskaltzainen ohoratzeko; hirugarrenik parada ematen didazula Euskaltzaindiaren izenean mintzatzeko.

Bai, eskerririk lehenik Azpeitiko Udalaren gomitarengatik, zorionak gero Azpeitiko herriari eta dauzkan agintariei erakusten baitute zein atxikiak diren euskarari eta bereziki euskararen erabilerari. Alabaina, zer da erabiltzen ez den hizkuntza? Erantzun nezake: ezer ez edo hiltorian dagoen hizkuntza.

Gu geu gara bidea: hauxe da egiazko ikurritza, zinezko goiburua. Gu geu, guk euskaldunok urratzen dugu bidea, guk geuk seinalatzen dugu norabidea, errepikatuz euskaraz nahi dugula bizi egunero, euskara dela gure arteko lokarria, bizi berri bat eman behar diogula. Gogoan daukat ere kantuak egiten duen galdea: Gu euskaraz eta zu zergatik ez? Eta, hain zuzen Euskara biziberritzeko plan nagusiaren garatzeko, euskararen erabilera bultzatzearen aldeko sinaduren biltzeko gomitatu duzu, alkate jauna Euskaltzaindia, euskararen akademia, euskara zaintzen, lantzen eta bultzatzen duena. Hor gaude, gu, euskaltzainak, Azpeitiko herriarekin eta hartzen dituen xedeekin bat eginez, txalotuz ere hartzen duzen bidea.

Hautatu duzue egun hau bi azpeitiar euskaltzainen omentzeko: Patxi Altuna eta Patxi Goenaga. Atsegin handirekin jakin dugu berria Euskaltzaindian eta hemen gaude gure kideen zoriontzeko, bakoitzak dituen merezimendu bikainen gatik.

Patxi Altuna, apaiz eta irakasle, Loiolari beti leial, Deusturi eta Euskaltzaindiari ere bai. Urgazle izendatua izan zen 1965-ean, euskaltzain oso 1980ean, hartuz Jose Maria Lojendio, euskaltzainburu izanaren albia, bere sarrerako mintzaldia egin zuelarik hemen bertan Koldo Mitxelena zela erantzulea. Euskaltzaindian zerbitzari eta langile kartsua izan da eta da batzordekide gisa: gramatika batzordean sartu zen eta Lafitte kalonjea zenduz gero batzordeburu, lekuko direla agertu diren euskal gramatikaren bost liburukiak; argitalpen batzordekide ere daukagu oroitaraziz **Iker** sailburu izana dela 1992-tik 1996 arte. Lexiko Erizpideen Finkapena deritzan batzordean egin du lan, halaber Euskara Batuko batzordean. Ikus dezakezue, jaun-andereak, zer konfiantza handia lortu duen Patxi Altunak bere euskaltzainkideen artean.

Irakasle izateko bereganatu ditu behar ziren diplomak: Filologia klasikoan lizentziaduna eta Euskal filologian doktorea “Versificación de Dextepare: métrica y pronunciación” deritzan tesiarekin Salamankako Unibertsitatean irakurria 1978-an Koldo Mitxelena zuela zuzendari, “Bikain cum laude” titulua-rekin lortzen zituela ohore guziak.

Hortik landa dator uzta ederra: *Etxepareren hiztegia* (1979) eta gero edizio kritiko asko, Etxepare, Ziburuko Etxeberri, Tartas, Ubillos, Fray Bartolome, Mendiburu, J.M. Estefania, Zabala, zerrenda luze honek erakusten duela edozein euskalkitan, izan diton Iparraldekoak edo Hegoaldekoak, murgildu dela. Hitz batez erakusten du Patxi Altunak kultura zabaleko ikerle eta irakaslea dela Donostiako EUTG-en eta Deustuko Unibertsitatean bere jakituria zabaldu duelarik ez dakit zenbat ikasleren aurrean. Euskaltzale eta irakasle antzek, haien artean euskaltzain gazte batzuek aitortu dezakete zer zor dioten Patxi Altunari. Ez nuke ahortzi nahi euskaldun berriek ikasi dutela euskara frankismo garaian Patxi Altunari eta argitaratu zituen *Euskara hire laguna* metodoari esker.

Hona, labur bilduz berrogei urteren emaitza nasaia. Nola esker dezakegu holako lana?

* * *

Patxi Goenagarekin beste belaunaldi batetara goaz. Euskaltzaindiak bereganatu dituen gazteetan kokatzen da, euskaltzain urgazlea izendatua 1979-an –31 urte zituela– eta euskaltzain oso 1995-ean Antonio Maria Labaien-en segida hartuz. Sarrera mintzaldia Gasteizen egin zuen han bizi zelakotz erantzule zuelarik Miren Azkarate, oraingo Kultura Sailburu anderea.

Euskaltzain guztiak badakite zer diren Patxi Goenaga-ren kalitateak. Berrikitan euskaltzain oso izendatua zelarik hurbildu nintzaion eta galdegin nion nahi zuen idazkaritza hartu. Hala egin zen 1996-an eta geroztik betetzen du kargu hori. Hainbat batzordetan sartua da Patxi Goenaga: Gramatika, LEF (Lexiko Erizpiden Finkapena), Argitalpenak, Lege Ekonomia, **Jagon** sailean ere Arabako ordezkari izendatua izan zelarik.

Gramatika batzordeko idazkaria izana da Patxi Altuna-ren gerizapean eta batzorde horretan lan egiten dute bi azpeitiarrek beste lagunekin oixtion aipatu ditudan Gramatikaren bost liburukietan parte on bat hartuz. Ez dezagun ahantz Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna dela Patxi Goenaga. Filologia erromanikoan lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean bere estudioak eginik eta Euskal filologia doktore tesia eder bat aurkeztuz Gasteizko fakultatean: "Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa". Oroit naiz epai mahainean nintzela eta nola preziatua izan zen tesia "Bikain cum laude" lorzen zuela aho batez. Dakidanez euskal joskerari buruz aurkeztua izan den lehenbiziko tesia izan da.

Gramatika izan da eta da Patxi Goenaga-k hautatu duen ikerketa eremua. *Gramatika bideetan* liburuarekin –bi argitalpen 1978-an eta 1985-ean– bazuten ikasleek behar den hazkurria euskararen sakontzeko. Liburu horrekin ukan duzu Galeria del Libro-k eskainitako zilarrezko lauburua eta zure tesiarekin Azkue saria, bi sari horiek aitortzen dutela zer izan den zure emaitza.

Irakasle eta kargudun izana da Euskal Herriko Unibertsitatean: Gasteizko Fakultateko dekanoa (1986-1990), Arabako kanpuseko errektore ordea (1991-1995), Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal filologia sailburua. Hau da, labur bilduz, 53 urteko katedradun eta euskaltzain batek betetzen dituen karguak.

* * *

Euskaltzainen lana da euskararen zaintzea, lantzea, bultzatzea. Hori egiten dute denek, eta egunero. Euskaldun, euskaltzale eta euskaltzain dira osoki. Zorionak, beraz, Patxi Altunari eta Patxi Goenagari Azpeitiko herriak eskaintzen dien omenaldi honetan. Denbora berean, Azpeitiak erakusten du hartu behar den bidea, gu geu diolarik. Euskarari emanez zor zaion tokia agertzen da eredu gisa.

Zorionak ere, bihotz bihotzetik Azpeitiko herriari. Orain Euskaltzaindiak bezala: *Ekin* eta bereziki *Jarrai!*